

Kultura Sailak 200.000 euroko dirulaguntza emango du kultura programazioa garatzeko

PlanÁ-ri lotuta, denboran irauteko asmoz sortu da, eta bi modalitate ditu; hain zuzen ere, profesionalentzat edo kultura elkarteentzat eta toki erakundeentzat

ALHAOn argitaratu (ekainaren 28an argitaratzeko aurreikuspena dago) eta hurrengo 20 egunetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak; hau da, uztailaren 19ra arte, aurreikuspenen arabera

Gasteiz, 2021eko ekainaren 23a. Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu Ana del Valek Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura erakutsi eta hedatzeko programak garatzeko dirulaguntzen 2021erako deialdia aurkeztu du gaur, 200.000 euroko guztizko zenbatekoarekin, eta 20.000 gehiago ere izan daitezke.

Dirulaguntza hori PlanÁ-ri lotuta dago eta berria da, eta haren xedea da "norgehiagoka bidez, dirua modu gardenagoan erabiltzeaz gain, ekitaldiak nabarmen hobetzea, ekarpena galdu gabe", adierazi du Del Valek.

Foru arduradunak dirulaguntzaren 2021. urte honetarako helburuak deskribatu ditu: "kultura elkarteek, kultura enpresek, udalek eta kuadrillek sustatutako kultura erakutsi eta hedatzeko programak eta jaialdiak garatzen laguntzea" .

Gainera, dirulaguntza hau kultura sektoreko profesionaleri eta enpresei zabaltzen zaie, orain arte ez baitute izan kultura programaziorako dirulaguntza lerrorik, kontuan hartuta kultura sektorearen idiosinkrasia.

Dirulaguntzak bi modalitate ezartzen ditu:

- Kultura sektoreko profesionalak, autonomoek eta enpresek, bai eta kultura elkarteek ere, sustatutako programei laguntzeko 150.000 euroko dirulaguntzak.
- Udalek eta kuadrillek sustatutako programei laguntzeko dirulaguntzak (salbu eta hiriburua, aukera gehiago ditu-eta nabarmen): 50.000 euro.

Bazter gelditzen dira elkarteak, taldeak eta antzekoak, baldin eta haien helburuen artean kultura jarduerak lehentasunik ez badute eta burutzen dituzten jarduerak kulturakoak ez badira. Baita honako hauek ere: auzo elkarteak, gazte elkarteak, aisialdikoak, hezkuntzarekin eta/edo prestakuntzarekin zerikusia dutenak, fundazioak, sailaren beraren programazioan sartutako ekimenak gauzatzen dituztenak edo sailak lehendik babesten dituenak.

Balorazio handiena lortu dutenak diruz lagunduko dira, hainbanatu gabe. Funtsak bi modalitateen artean banatu ahal izango dira. Baina 800 eurotik gorako balioa duten proiektuak baino ez dira diruz lagunduko.

Lehenengo kasuan, programaren aurrekontu osoaren % 75 diruz lagundu ahal izango da, eta gehienez ere 12.000 euro emango dira. Bigarrenaren kasuan, % 60 diruz lagundu ahalko da, eta gehienez ere 5.000 emango dira.

ALHAOn argitaratu (ekainaren 28an argitaratzeko aurreikuspena dago) eta hurrengo egunetik 20 egun izango dira eskaerak aurkezteko; hau da, uztailaren 19ra arte.

"Asmoa da sustatzen jarraitzea sailetik harago egiten den kultura lan goresgarria, eta sinetsita gaude dirulaguntza hori horretarako funtsezko zutabeetako bat izango dela" esan du.

PlanÁ

Hau da PlanÁ-ren 2021. urte honetarako argitaratutako laguntzetatik laugarrena. Martxoan, gastu arruntetarako 250.000 euroko dirulaguntza argitaratu zen (zenbateko hori 275.000 eurora igotzeko aukerarekin); eta apirilean, Kultura Bizia proiekturako behar den azpiegiturari loturiko 75.000 euroko inbertsioaren berri ere izan dugu; baita 135.000 eurokoa ere, partikularrek sustatutako kultura ondare higiezina kontserbatzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeetarako. 200.000 euro horiekin, dagoeneko 660.000 euro inbertitu dira 2021eko PlanÁ-rako aurrekontuan jaso zen 740.000 euroko zenbatekotik.